

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2013ko abenduak 5ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuak berri eman da:** 1.1. Ekitalde Hondakinak; 1.2. Auzolan 21 RCD; 1.3. Irigarritasun planak; 1.4. Ingurumen arloko laguntzak BFA; 1.5. Fokuen Inbentariarako Lantaldearen bilera; 1.6. Sagarrak elkartearen bilera: Ingurumena lehengoratzea, bertako basoarekin; 1.7. Hondakinak prebenitzeko Europako Astea; 1.8. Ibaiertzak lehengoratzea; 1.9. Eskola Bidea; 1.10. Eskola adin goiztiarrean uzteari buruzko foroa; 1.11. Basauriko showroom delakoaren bisita; 1.12. Motor Verde delakoaren bisita; 1.13. Argitaratutako albisteak; 1.14. Rezolaren 50. urteurrena.
- **Erosi eta kontratatze eskualdeko zerbitzurako pilotajea:** Jakinarazi da zenbait ekintza egin direla laguntza teknikoaren aurrekontuak doitzeko, hasieran aurreikusitako maila baino beherago geratu arte. Bi kontratazioen berri eman da. Mas Abogados: "Nerbioi-Ibaizabalen, iraunkortasun irizpidearekin erosi eta kontratatze eskualdeko zerbitzurako pilotajearen aholkularitza juridikoa", 1.210 euroren truke, BEZ barne; eta Inguru: "Zati organikoa batzeko eskualdeko kontratazioarako baldintzen azterketa tekniko eta ingurumenekoa", 13.975,50 euroren truke, BEZ barne. Jakinarazi da Berringurumena Proiektuaren justifikazio ekonomikoa aurkeztu dela eta, aurreikuspenen arabera, datorren astean dokumentazio tekniko aurkeztuko dela. Extraneta aurkeztu da pantailan. Zerbitzua abiarazteko bide-orria aurreratu da: 1) Oinarrizko akordioarako dokumentua onartzea; 2) Udal bakoitzak zerbitzuarekin bat egitea; 3) Interesa duten udaletan, zati organikoa batzeko kudeaketaren Gomendioa onartzea. 4) Tresna informatikoa martxan jartzea.
- **Zati organikoa batzeko zerbitzuaren lehiaketa:** Plegu teknikoaren amaituta dagoela jakinarazi da. BFAREN Ingurumen arloko laguntzen baldintzak gogorarazi dira. Zati organikoa batzeko eskualdeko kontratazioarako baldintzen azterketa teknikoaren eta ingurumenekoaren ondorioak jaso ostean zehaztasuna eskatu zaie udalei ezarpenaren planteamendua dela eta.
- **Hornidura elektrikoaren lehiaketa:** Plegu teknikoaren zirriborroa idatzita dagoela jakinarazi da. Aurreikuspenen arabera, 2014ko bigarren zatian argitaratuko da.
- **Abandonatutako animaliak batzeko zerbitzuaren lehiaketa:** Jakinarazi da Eudelen egindako azken bilera lehiaketarako plegu-eredua erabakitzeko. Lehiaketa behin betiko plegu-eredua jasotzean egingo dela planteatu da. Berretsi da 6 udal interesatuta daudela eskualdeko lehiaketan parte hartzeko.
- **2013ko balantze ekonomikoa, azaroaren 30ean:** Urte amaierara arte, diruzaintza arloko zailtasunei aurre egiteko moduei eta egoerari buruzko informazioa eman da.
- **2014ko Kudeaketa eta Ekintza Plana:** 2014ko kudeaketa eta ekintza plana onartu da, bai eta ohiko udal kuotak ere. Lehiaketa egin behar denean eta, ondorioz, planean jasotakoaren balioespina egiten denean, zati organikoa batzeko zerbitzuaren bigarren kuota finkatuko da.



- **Ziurtagiri energetikoa:** Eraikinen ziurtagiri energetikoak prestatzeko kontratazioa modu bateratuan egiteko aukera planteatu da.
- **Zati organikoa batzeko eskualdeko kontrataziorako baldintzen azterketa teknikoa eta ingurumenekoa:** Ondorioak aurkeztu dira. Datozen asteotan, amaitutako lanaren emaitzak jasoko dira udaletan, modu indibidualizatuan. Hauek dira hurrengo urratsak: 1) Udal bakoitzaren azterketa, erabakia eta zehaztasuna; 2) BFAko Ingurumen Sailari diru-laguntza eskatzeko prestaketak egitea, edukiontzia eskuratzeko eta informazio-planak egiteko; eta 3) bilketa-zerbitzua kontratatzeko lehiaketa prestatzea.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** urtarrilaren 23an, 9:00etan.